



Komunikazioa euskaraz

JUSTIZIAREN ANTOLAKETA FRANTZIAN ETA ESPAINIAN

Mugako biztanleentzat gida praktikoa

1

Kattin LÓPEZ MANTEROLA

Maialen SAN SEBASTIÁN

AURKIBIDEA: **I. Sarrera:** 1. Aurkezpena.-2. Sarrera labur bat.-2.1. Kontzeptuen zehaztapena: Espainiaren antolaketa berezia.-**II. Jurisdikzio ordenak.-III. Auzitegien sailkapena.**-1. Espainiako antolaketa.-2. Frantziako antolaketa.-2.1. Sail Judiziala.-2.2. Sail administratiboa.-**IV. Ondorioak.**-1. Frantziako antolaketa etorkizunari begira.-2. Bukaerako hitza.-**Bibliografia.**

I. Sarrera

1. Aurkezpena

Egunero milaka pertsonak zeharkatzen dute Irunen kokatua dagoen Espainia eta Frantziaren arteko muga. Izan ere, asko gara herrialde hauen artean bizi garenak: batzuek lana mugaren beste aldean daukatelako edo ikasketak burutu behar dituztelako, beste batzuek familia edo lagunak bi herrialdeen artean sakabanatuak dituztelako ... Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa formatzen duten Hendaia – Hondarribi – Irunen kasua hartuz, erraz ikus dezakegu bertan ez dagoela hainbesterako “Frantzia” eta “Espainia” arteko banaketarik. Gure egunerokoan sartu dugun errutina da hori, baina legediari begira, bertako biztanleak egunero-egunero bi ordenamendu juridikoren menpe sartzen dira edozein erlaziotarako. Gauzak horrela, komenigarria da bi herrialdeek daukaten justiziaren antolaketa ezagutzea, edozein ezustekori era egokian aurre egin ahal izateko.

Honela, gaurko erronka garrantzitsuenetariko bat legelari gazteen kasuan prozesu mistoetan parte hartzeko gai izatea izan daiteke. Esate baterako, oso pertsona gutxi daukate bi edo hiru hizkuntza ulertzeko eta hitz egiteko gaitasuna, eta are gutxiago bi ordenamendu juridiko ulertzeko eta ezagutzeko behar den aldakortasuna. Zorionez Hego Euskal Herriak zenbait prozesu euskaraz egiten ahal badira, gero eta gehiago alegia, zoritxarrez Ipar Euskal Herrian ez da hala, eta oraindik justiziako hizkuntza bakarra frantsesa da.

Beraz, artikulua honen helburua Frantzian bizi diren biztanle euskaldunei Espainiako Justiziaren antolaketari buruz argibideak ematea eta era berean Espainiak bizi diren euskaldunei Frantziako justiziaren antolaketa aurkeztea da, bizilagun diren estatu hauek hobeto ezagutu ditzaten. Espainiak eta Frantziak duten Justizia antolatze oso antzekoa da baina honako gida hau kontuan hartzea ez dago gaizki muga zeharkatzerako garaian.

2. Sarrera labur bat

Frantzian gertatzen den bezala, Espainian ere pertsona orok du auzitegiengandik benetako babesa lortzeko eskubidea, abokatuaren defentsa behartzeko, errudunak ez aitortzeko eta abar. Beraz, justiziaren funtzionamendua antzekoa izango da baina horrek ez du esan nahi antolaketa eta egituraren inguruan desberdintasunik egongo ez direnik.





Gaur egun, justizia tradizionala aldatzen ari da, globalizazioa eta aldaketa demografikoak direla eta. Frantzia oso aldaketa garrantzitsuak egin ziren 1958ko konstituzioa onartu eta bideratu zenean, honela gizartearen behar berriei egokituz.

Justiziaren jatorria herritarron borondatea da eta Epaile eta Magistratuek administratzen dute, baina Espainian Erregearen izenean ematen da Konstituzioko 117.artikuluak dioen bezala. Honek ez du esan nahi Erregeak Justiziarengan eragina izan dezakeenik, Epaile eta Magistratuek legearen arabera hartzen dituztelako erabakiak eta honek justiziaren independentzia ziurtatzen du.

2.1. Kontzeptuen zehaztapena: Espainiaren antolaketa berezia

Frantzia eta Espainiako lurralde-antolaketa oso desberdina da, Frantzia estatu zentralizatu bat den bitartean Espainiak autonomia daukaten lurraldeetan zatikatuta dagoelako. Honek bere eragina dauka justizia antolatzeko garaian jarraian ikusten den bezala:

- (1) Udalerriak: Lehen Instantziako Epaitegi bat ez daukan udalerriak Bake-epaitegi bat edukiko du.
- (2) Barruti judizialak: Udallerri talde batez osatzen dira eta bertan Lehen instantziako epaitegiak eta Instrukzioko epaitegiak daude.
- (3) Probintziak: Bertan jurisdikzio-ahalmena daukate Probintzia-auzitegiak, Sozial arloko epaitegiak, Administrazioarekiko auzien epaitegiak, Zigor-arloko epaitegiak, Adingabeen epaitegiak eta Espetxe-zaintzako epaitegiak.
- (4) Autonomia erkidegoak: Maila honetan kokatzen dira Auzitegi Nagusiak.
- (5) Estatu mailan: Auzitegi Nazionala eta Auzitegi Gorena ditugu.

II. Jurisdikzio ordenak

Espainiako konstituzioaren 117.3 artikulua dioenez epaitegiak dira jurisdikzio-ahala dutenak eta hori betearazteko jurisdikzio-ordena desberdinetan sailkatzen da sistema:

a. Jurisdikzio-ordena zibila: Eskubide subjektiboekin eta interes pribatuekin zerikusia duten arazoez arduratzen da. Ordena orokorra ere esaten zaio, beste ordena bati egoitzen ez zaion guztia erakartzen baitu.

b. Zigor jurisdikzio-ordena: Ordena honen helburua da delitu bat eman den ala ez egiaztatzea eta delitu bat egon bada, dagokion zigorra ezartzea. Praktikan asko gertatzen den gauza bat da delituak epaitzean erantzukizun zibila ere finkatzen dutela eta horrela dena prozedura berberean egiten da eta ez dago beste epaiketa zibil bat irekitzeko beharrik.

c. Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena: Administrazioa osatzen duten organoen jokaera egokia kontrolatzen du, legeari egokitzen zaion ala ez egiaztatuz eta administrazioaren aurka jartzen diren erreklamazioak epaitzen dira.

d. Sozial jurisdikzio-ordena: Lan munduaren barruan gertatzen diren gatazken berri izaten du eta Gizarte Segurantzako kontuak ere bai.

III. Ikasleen ekarpenak



3

Lau ordena hauez gain, Espainian gainera Jurisdikzio-ordena Militarra ere dago, batasun jurisdikzionalaren salbuespena bilakatzen dena. Gertakari hau konstituzioak justifikatzen du, ordena hau armadako arloan soilik ematen delako edo setio-egoeran.

Jurisdikzio-ordena bakoitzaren barruan epaitegi espezializatuak sortu direla kontuan izan behar da. Honek ez du ematen beste jurisdikzio-ordena berriak sortzen direnik, baizik eta espezializatu egiten direla arloaren arabera. Adibidez zigor arloko epaitegietan emakumearen aurkako indarkeriaren epaitegi bat egon daiteke edo adingabekoentzako epaitegiak eta abar.

Frantzian jurisdikzio-ordenen sailkapena ber-bera da, baina sailkapen hau ez da normalean hain exhaustiboa egiten, adar pribatua eta adar publikoa banatzen dira besterik gabe. Ondorengo atalean azalduko den bezala, bi adar hauen barruan sailkatzen dira auzitegi guztiak.

III. Auzitegien sailkapena

1. Espainiako antolaketa

Hona hemen aurreko atalean izendatutako epaitegiek zertarako diren gai:

a. Bake epaitegiak

Alor zibileko eta kriminaleko adiskidetzak ebazten dituzte, edozein delarik bere munta alor zibilean. Gainera alor zibileko epaiketa batzuk ere egiten dituzte, betiere 90 euroko munta gainditzen ez badute eta falta-judizio batzuk ere egin ohi dituzte. Bake epaitegietan dauden epaileak ez dira epaile arruntak, arlo judizialek kanpo dauden bake-epaileak dira eta udalak hautatzen ditu era demokratikoan.

b. Lehen instantziako epaitegiak

Izen hori dauka, arazo bat dagoenean joan behar garen lehen epaitegira delako. Barruti judizialeko hiriburuetan egoten dira eta bertan era askotako gatazkak konpondu daitezke: zibil arlokoak, merkataritza kontuak, borondatezko jurisdikzioa, familia auzitegia, eta abar. Epaitegi hauek dauden lekuan ere egon ohi da erregistro zibila.

c. Instrukzioko epaitegiak

Epaitegi hauei delituen instrukzioa edo ikerketa dagokie eta lehen instantzian epaitzen dituzte ia falta guztiak, familia barruko faltak era eskusiboan epaitzen dituztelarik.

d. Zigor arloko epaitegiak

Delitu txikiak eta delitu larri batzuk epaitzen dituzte ahozko judizioko ekitaldietan, hau da, delituek ezar lezaketzen zigorra 5 urte baino gutxiagoko espetxeratzea denean, bestela, gertakaria probintzia auzitegira joango litzateke zuzenean.



e. Sozial arloko epaitegiak

Langileen eta enpresaburuen arteko gatazkak eta azkeneko hauen arteko gatazkak konpontzen dituzte, betiere hauen jatorria lan-kontratua edo Gizarte Segurantza denean.

f. Administrazioarekiko auzien epaitegiak

Lehen instantzian edo instantzia bakarrean ematen dituzte auziak. Udalerrietan edo Autonomia Erkidegoan dauden organo publikoen administrazioari buruz gatazkak konpontzen dituzte.

g. Espetxe-zaintzako epaitegiak

Hainbat funtzio dituzte baina esanguratsuenak askatasunaz gabetzeko zigorrak eta segurtasun-neurriak betearazteko arduradunak direla da eta gainera espetxeratuen babesa eta eskubideez arduratzen direla, beste eginkizun batzuen artean.

h. Adingabeen epaitegiak

14 eta 18 urte bitartean dituzten gazteek burututako delituez eta faltez arduratzen dira. Epaitegi espezializatua da.

i. Probintzia auzitegiak

Epaitegi honek zibil eta zigor arloko eskumenak ditu. Alde batetik zigor arloan bi eginkizun ditu: bata lehen eta instantzia bakarrean epaitzea 5 urtetik gorako askatasunaz gabetzeko zigorrak dituzten delituak eta bestea probintziazatik datozen adingabeen epaitegiko, zigor epaitegiko eta instrukzioko apelazio-errekurtoak epaitzea. Beste alde batetik zibil arloan lehen instantziako epaitegiko apelazio-errekurtoak ebaztea.

j. Auzitegi nagusiak

Autonomia erkidegoan maila gorena daukan auzitegia da hau. Hiru epaimahaiez osatzen da: Zibila eta penala, soziala eta administrazioarekiko auziak. Bere eginkizuna errekurtoak ebaztea da eta autonomia estatutu bakoitzean finkatzen dira zeintzuk diren bere aparteko eginkizunak.

k. Auzitegi nazionala

Madrilen kokatua dago eta bere eginkizuna da autonomia erkidegoaz arako eragiten duten delituak aztertzea eta epaitzea. Adibidez dirua faltsifikatzea, droga kontuak, terrorismoa... Hiru auzi-gelatan banatzen da: Zigor auzi-gela, administrazioarekiko auzien auzi-gela eta auzi-gela soziala.

l. Instrukzioko auzitegi zentrala

Auzitegi Nazionalak eta Zigor auzitegi zentralak epaitu behar dituen delituen instrukzioa edo ikerketa burutzen du eta behin-behineko espetxeratzeak egin ditzake.

m. Zigor auzitegi zentrala

III. Ikasleen ekarpenak



Auzitegi Nazionalaren eskuduntza diren gai batzuen ahozko epaiketaz arduratzen da, konkretuki 5 urte baino gutxiagoko espetxeratzearekin zigortzen diren delituez.

n. Administrazioarekiko auzien auzitegi zentrala

Ministroek eta estatuko idazkariak emandako egintzen kontrako auziez arduratzen da, baita estatuko organo zentralak emandakoez ere.

o. Auzitegi gorena

Auzitegi guztien gaineratik dago, bere izenak dioen bezala gorena delako gauza guztietan, batean ezik: konstituzioaren bermeak. Ematen dituen epaiak jurisprudentzia finkatzen dute eta auzitegiek emandako jurisprudentziaren bateragarritasuna ematen du. Bost epaimahai ditu, jurisdikzio-ordena bakoitzerako bana.

p. Auzitegi konstituzionala

Konstituzioari buruzko eztabaidak eta interpretazioa ditu langai.

Ikus daitekeenez, auzitegi desberdinak daude eta Lehenengo Instantziatik hasi eta errekurtsioak jarriz azkenean Auzitegi Gorenera heldu gaitezke, baldin eta beste auzitegi batean hasia ez badagokio. Maila gorenagoa duten auzitegiek, azpikoek epaitu dutena aldatu dezakete sarritan, beraz errekurtsioa jartzea ez da tontakeria bat. Baina gerta daiteke gorenako auzitegiek zigor altuago bat adostea beraz kontuz ibili behar da ere bai.

Dena den, beste ikuspuntu argiago bat ematen du jurisdikzio-ordenen azterketak, konkretuki arlo bakoitzean zer jorratzen den ikusiko delako.




2. Frantziako antolaketa

Frantzian bi adar nagusi daude: ordenamendu judiziala eta ordenamendu administratiboa.

Sail judizialak zibila eta penala barneratzen ditu. Lehen eta bigarren graduko tribunalak daude, azkenik kasazio auzitegira iristeko.

2.1. Sail Judiziala



2.1.1. Tribunal bakoitzaren azalpena

Penaleko auzitegiak:

a. Asisetako auzitegia

Frantzian asisetako auzitegiak departamenduko auzitegiak dira. Krimenak eta krimenei lotutako kontuak epaitzen ditu. Bere kompetentzia Prozesu Penaleko kodearen 231. artikulua¹ arautzen dut. Hauek larrienak dira, hau da, 15 urtetik gorako zigorra ukango dute.

Normalean auzitegi hauek ez dira asko erabiltzen. Hasiera batean hiru hilabetero behin erabiltzen ziren, baina orain toki batzuetan bereziki (Paris, Seine-Saint-Denis,...) bi astero erabiltzen dira guti gora behera. Erabileraren maiztasuna departamendu bakoitzak aukera dezake.

¹ Article 231: « La cour d'assises a plénitude de juridiction pour juger, en premier ressort ou en appel, les personnes renvoyées devant elle par la décision de mise en accusation. Elle ne peut connaître d'aucune autre accusation. »





b. Auzitegi korrekzionala

Frantzian, auzitegi korrekzionalak delituentzat dauka eskua. Frantzian delituek kartzelatzea edo 3750 euro baino gehiagoko zigorra daukate. Kartzelatze denbora luzeena 10 urtekoa izango da².

c. Polizia auzitegia

Polizia auzitegiek arau hauste apalenentzat daukate eskua. Hau da, 3000 euro baino gutxiagoko balioa duten arazoentzat joango gara polizia auzitegira.³

d. Gazte auzitegia

Gazte auzitegietan adingabeen lege-hauste, deitu eta krimenak epaitzen dira. Hala ere jakin behar da krimenen kasuan, 16 urte baino gehiago dituzten gazteek asisetako auzitegietako saio berezietara joateko premia ukango dutela.

Auzitegi mota honetan ezingo da edonor sartu gazteak babestu ahal izateko, eta zerbait argitaratuko balitz, gaztearen izena aldatu edo ezkutatu beharko litzateke.

Zibileko auzitegiak

a. Segurtasun sozialeko auzitegia

Auzitegi mota hau auzitegi espezializatu bat da. Bere izenak esaten duen bezala, segurtasun sozialarekin zerikusia duten kontuetarako balio du. Honela partikularrek segurtasun sozialeko edozein erakunderekin dauzkaten arazoak bertan konpontzen ahalko dituzte.

Osaera berezia daukate auzitegi hauek, magistratu profesionalaren gain bi edo hiru laguntzaile izango direlako, segurtasun sozialeko kontuetan adituak.

b. Hurbiltasuneko auzitegia

Auzitegi mota hau, 2011ko legearen arabera; 2017an desagertuko da, beste aldaketarik ez badago. Desagerpena aurtengo urtarrilerako pentsatua zen, baina azkenean bi urte atzeratu zuten. Arazo asko sortzen ditu desagerpen honek, gaur egun epaileak eskas direlako eta auzitegien antolaketa ez delako oso ona Frantzian.

Kontu zibiletan, auzitegi honek 4000 euro baino gutxiagoko balioa duten kontuentzat eskua ukango du auzitegi honek.

c. "Prud'homme"

Prud'homme delako auzitegian lan erlazio pribatu baten ondotik sortutako arazoan ezagutzailea izango da.

Bi denboratan egingo dira bertako prozesuak: lehenik bi atalen adostasuna bilatzea izango da ideia, eta hau ezinezkoa balitz, epai bat eman beharko lukete.

² Article 381 « Le tribunal correctionnel connaît des délits.

Sont des délits les infractions que la loi punit d'une peine d'emprisonnement ou d'une peine d'amende supérieure ou égale à 3 750 euros. »

³ Article 521 « Le tribunal de police connaît des contraventions.

Sont des contraventions les infractions que la loi punit d'une peine d'amende n'excédant pas 3000 euros. »



Bertan ez dago epaile profesionalik, aholkulariak baizik. Honela kalifikazioa hobea izango da, arlo bateko profesionalen artean gelditzen baitira gatazkak.

Inola adosterik ez balitz, instantzia auzitegiko epaileak hartu beharko luke azken erabakia.

Prud'homme delako auzitegietan 4000 euro arteko gatazkak epaitzen dira.

d. Instantzia auzitegia

Instantziako auzitegia bake epailearen desagerpenaren ondorioz sortu da. Maila txikiko gatazkak konpontzeko balio du, hau da, hurbil dauden herrien arteko herritarren artean eta 10 000 euro baino gutxiagoko balioa duten gatazken kasuan besterik ez.

Gainera, gatazkaren balioa 4000 euro baino gutxiagokoa denean, apelazioa ez da posible izango.

e. Auzi zibilen auzitegia

Auzitegi garrantzitsuenetariko bat da. Instantzia auzitegiak kompetentziarik ukango ez duenean ukango du honek. 10 000 euro baino gehiagoko balioa ukango duten kontuetan joango gara bertara.

Bigarren graduko auzitegiak

*Apelazio auzitegiak*⁴ bigarren graduko auzitegiak dira. Ez dago inongo zailtasunik, lehen graduko auzitegiek emandako erabaki baten inguruan eztabaida bat sortzen bada bertara jo beharko da eta bigarren erabaki bat hartuko da bertan.

Ez da beti hara jotzeko aukerarik, balioa apalegia izan daitekeelako adibidez. Epaitegi mota honetan epaileak espezializatuagoak izango dira. 3 epaile izango dira kasu normaletan eta 5 epaile kasu berezietan. Parisen, oso kasu garrantzitsuak izango balira, bi ganberak elkartu ahal izango dira erabaki bat hartu aurretik. Baina hori ez da oso ohizkoa.

⁴ Oraingo antolaketa: Agen: Gers, Lot et Lot-et-Garonne. Aix-en-Provence: Alpes-de-Haute-Provence, Alpes-Maritimes, Bouches-du-Rhône et Var. Amiens: Aisne, Oise, et Somme. Angers: Maine-et-Loire, Mayenne et Sarthe. Basse-Terre: Guadeloupe. Bastia: Corse-du-Sud et Haute-Corse. Besançon: Doubs, Jura, Haute-Saône et Territoire de Belfort. Bordeaux: Charente, Dordogne et Gironde. Bourges: Cher, Indre et Nièvre. Caen: Calvados, Manche et Orne. Cayenne: Guyane. Chambéry: Savoie et Haute-Savoie. Colmar: Haut-Rhin et Bas-Rhin. Dijon: Côte-d'Or, Haute-Marne et Saône-et-Loire. Douai: Nord et Pas-de-Calais. Fort-de-France: Martinique. Grenoble: Hautes-Alpes, Drôme et Isère. Limoges: Corrèze, Creuse, et Haute-Vienne. Lyon: Ain, Loire et Rhône. Metz: Moselle. Montpellier: Aude, Aveyron, Hérault et Pyrénées-Orientales. Nancy: Meurthe-et-Moselle, Meuse et Vosges. Nîmes: Ardèche, Gard, Lozère et Vaucluse. Nouméa: Nouvelle-Calédonie et Wallis-et-Futuna. Orléans: Indre-et-Loire, Loir-et-Cher et Loiret. Papeete: Polynésie française. Paris: Paris, Seine-et-Marne, Yonne, Essonne, Seine-Saint-Denis et Val-de-Marne. Pau: Landes, Pyrénées-Atlantiques et Hautes-Pyrénées. Poitiers: Charente-Maritime, Deux-Sèvres, Vendée et Vienne. Reims: Ardennes, Aube, et Marne. Rennes: Côtes-d'Armor, Finistère, Ille-et-Vilaine, Loire-Atlantique et Morbihan. Riom: Allier, Cantal, Haute-Loire et Puy-de-Dôme. Rouen: Eure et Seine-Maritime. Saint-Denis: Mayotte et La Réunion. Toulouse: Ariège, Haute-Garonne, Tarn et Tarn-et-Garonne. Versailles: Eure-et-Loir, Hauts-de-Seine, Val-d'Oise et Yvelines.




Azken errekurtsoko auzitegia

Kasazio auzitegia Parisen aurkitzen dugu. 6 ganbera ditu: ganbera kriminala, soziala, komertziala, pertsonen, familiaren eta kontratuen ganbera, segurtasun sozial eta erantzukizun zibilaren ganbera, etxe-higiezin eta eraikuntza ganbera.

Kasazio auzitegiak ez du normalean epaien edukia aztertzen eta ezin dira bertan inoiz xedapen berriak aurkeztu. Forma eta azpi auzitegiek egindako legearen aplikazioa aztertuko du eta erabaki finko bat emango du. Kasazio auzitegiaren erabakia ezin da Frantziako auzitegien aurrean eztabaidan ezarri.

2.2. Sail administratiboa



Antolaketa askoz errazagoa da, baina prozesuak oso teknikoak izan ohi dira. Jakin behar da Frantzian ez dagoela abantzu lege administratiborik, prozesu guztiak jurisprudenzialak izaten dira Ingalaterrako “precedent” sistemaren antzera. Justizia administratiboan ez dago beraz koderik arlo judizialean kode zibila edo kode penala dauzkagun bezala. Jurisprudentzia garrantzitsuenak GAJA (Grands Arrêts de la Jurisprudence Administrative) delakoan barneratuak daude. Bertatik “PGD” (Zuzenbidearen Printzipio Orokorrak) atera eta lege erara erabiltzen dira.

IV. Ondorioak

1. Frantziako antolaketa etorkizunari begira


Frantziako auzitegien antolaketa ez da oso konplexua, baina heldu den urteetan seguruenik berriro ere aldatuko da. Alegia, François Hollande lehendakariak Frantziako lurralde-antolaketa aldatu du. Auzitegien antolaketa datozen urteetan aldatuko dela pentsa dezakegu.

Mugan bizi garen gazteak kontuz ibili beharko gara beraz. Frantzia eta Espainia oso estatu ezberdinak dira haien antolaketari dagokionez, Espainia estatu zentralizatu bat delako eta Frantzia ez delako inoiz zentralizatu izan. Heldu diren urteotan aldatetak zentralizaziorantz badoaz, ez da era bat antolaketa berdina izango, inoiz.





Oraingoz, hau da antolaketa:





2. Bukaerako hitza

Gure inguruan sortu diren sistemek nahitaez eramaten gaituzte bi antolaketa era desberdin ezagutzera. Bereziki garrantzitsua da mugako biztanleentzat inguratzen gaituzten herrialdeen Justiziaren antolaketa ezagutzera eta erabilgarria izan daiteke noizbait zerbait gertatzen bada.

Kontuan izan beharreko bi gai nagusi daude: alde batetik Espainia eta Frantziaren lurralde-antolaketa desberdina dela eta beraz, justizia antolatzeko era ere desberdina izango da. Gainera, Espainia ez da estatu zentralizatu bat eta lurralde bakoitzak askatasun gehiago dauka Justizia antolatzeko, beraz, organo desberdinak daude funtsean antzeko funtzioak dituztenak, baina antolatzeko eran desberdintasunak dituztenak.

Bibliografia

Artikuluak

“La justice en France”, Rapport du Ministère de la Justice, 2013.

“L’organisation de la justice en France”, Ministère de la Justice, 2014.

“L’organisation du système judiciaire en France et sa place dans le système institutionnel”, Conférence Athènes, Philippe de VILLIERS.

Kontsultatutako webguneak

Dalloz

Justice.gouv

Légifrance

Lexis Nexis